

hondo-hondotik

Pedro Pablo Arrinda

(Historia irakaslea)

Historiaren manipulazioa

Garai askotan erabili izan da Historia, sasoi horietako *status quo* soziala justifikatzeko edo interpretatzeko, errealtate historiko objektiboa albo batera utzita.

Erdi Aroan, esaterako, historiari kristautasunaren egia eta probidentzia egiazatzeko lana eman zitzaion; Errenazimentuan, berriz, Jainkoaren ideia baztertu gabe, giza arrazoiari eman zitzaion lehentasuna. Honenbestez historiaren filosofia sortzen zen: unibertsoak zuen legez historiari ere zentzua eman behar zaio.

XVIII eta XIX. mendeetan Historiak protagonismo izugarria hartuko du herri bakoitzaren gizarte eta politika errealtateak interpretatzeko helburuarekin. Hori horrela, gizarte barruan izan daitezkeen haustura edo aldaketa bortitzen aurrean, Historiara joko da egoera berri hori justifikatzeko edo baztertzeko.

Frantzia, Erregimen Zaharra suntsitu zuen Iraultza burgesaren ondoren, eta batez ere, Vienako Kongresuaren ostean, burgesiak Historia botere politikoa hartu izana justifikatzeko erabiliko du, hau da, Iraultza bera prozesu historiko baten amaiera logikoa izango balitz bezala. Errealtate historikoaren aldaketa helburu politikoen menpe jartzearen adibide garbiak Guizot, Thierry edo Michelet historialariak dira.

Ingalaterrak historiaren beste garapen mota bat hautatuko du. Mende hauetako gizarte ingelesak, batez ere botere politikoa burgesiak eta aristokraziak elkarrekin banatuta daukatelako, ez du inongo aldaketa bortizik bizi izango. Hala ere, Natur Zientziak jasandako garapenak eraginda, Historia ere zientzia experimental bilakatu nahi izango da, eta horrela sortuko da Comte eta Spencer-en hastapeneko soziologia.

Alemanian, bestalde, Historia beste ildo batetik joango da, alemaniar nazioa eraiki-

tzeko ezinbesteko arma bilakatuko baita. Garai hau, aurrerago, *Erromantizismo historikoa* izendatuko da. Herder-ek historiografiari herriaren espirtuaren zentzua edo *Volksgeist*a erantsiko dio: herri bakoitzak bere banakotasuna du, berezko osotasun ezberdina osatzen du; eta berezko osotasun hau ezin dute, arrazionalistek nahiko luketen bezala (Voltaire edo Montesquieu), inguru fisiko edo eguraldi arrazoiekin azaldu; berezko osotasun hau herriena beraiena da, berezkoa. Beraz, gertaera historikoak kolektibitatearen sorkuntzaren ondorioak bailiran interpretatu behar dira. Tesi hauek bultzatu zituzten germaniar historialariak, besteak beste, Schiller, Sybel eta Ranke dira. Azken honek *historismus* terminoaren ekarpena egingo du: herri bakoitzak Jainkoarengandik misio bat jasotzen du, agerkunde bat, eta Bere aurrean bakarrik da erantzule.

Erromantizismo germaniarrak eta honen *Volksgeist*-en kontzeptu egiturak, XIX. mendeko euskal gizarteko zenbait inguru intelektual eta eremu politikotan eragina izango du. Mende honetan Euskal Herrian bi haustura gertatuko dira: haustura politikoa bate-tik, foruen galtzeak dakarrena eta gudu karlistetako bortizkerian isladatzen dena; eta haustura soziala bestetik, industrializazioaren eraginez sorturiko baserri eta hirien arteko talkan datzana. Egoera honetan, Euskal Herriko historiaren mitifikazioa emango da euskal nazio sentimendua sortzeko asmoz, germaniarrek egin zuten bezalaxe beren Historiarekin. Beste autore batzuen artean Chaho, Villoslada, Trueba... nabarmenduko ditugu, eta batez ere, aurrerago izango zuen eraginagatik, Sabino Arana.

Helburu politikoetarako historiaren erabilera honek ez du esan nahi, inolaz ere, Euskal Herriak ez duenik bere historia propioa izan. Nafarroako Erresuma, Gaztelako Koroarekiko paktuak, foru eskubideak, berez-

ko hizkuntza eta kulturaz batera. Horiek guztiak arrazoi garbia dira Euskal Herria subjektu politikotzat hartzeko. Baina aldi berean, XIX. mendean euskaldunok historia euskal nazio kontzeptua indartzeko erabili genuen bezala, historiografia espainiarra ez zen atzean gelditu. Espainiar nazio kontzeptuak, XIX. mendean aurrera joan ahala baino ez zuen gorputzik hartu. Sektore zabal batentzako nazio hitza liberalismoarekin lotuta zegoenez ez zuten ondo ikusten. Testuinguru honetan ez da harrizkoa Erregimen Zaharraren aldeko karlistek zera aldarrikatzea: «Gora Erregea! Gora erlijioa! eta Behera Nazioa!». No-lakoak diren gauzak!, lehenengo gerra karlistan hauen kontrakoei *los nacionales* deituko diete. Menéndez Pelayo eta Sánchez Albornoz historialari espainiarrak izan ziren aurrerago gizarteko mutur bi hauek batu eta uztartzeko *Nacional Catolicismo*-a asmatu zutenak. Manipulazio arbitrario, mitifikatu eta erlijio sinboloz jositakoa da beraz. Irudi horretan oinarriturik ekarriko dira Historiara honako gertaerok: Bisigodoen kristau oinordetza, Santiago apostoluaren hilobia, eta, Covadongan hasi eta Errege Katolikek burutuko zuten espainiar birkonkista-bateratze prozesua. Balizko nazio identitate honen ezaugarriak behinena Islamarekiko konfrontazioan datza.

HISTORIAREN ERABILERA

Helburu politikoetarako historiaren erabilera ez du esan nahi, inola ere, Euskal Herriak ez duenik bere historia propioa izan

Beraz, aurreko adibideak begiratzuz gero, posible al da objektibotasuna historian? Hasteko esan beharra dago Zientziak berak ere, gaur egun, %100en ezin digula objektibotasunik eskaini. Heisenberg-en Ziurgabetasun Teoriatik abiatuz, fisika probabilitate eremuan sartuko da eta hortik dator

Einstein-en atsekabea eta bere baieztapena: «Jainkoak ez du dadoetan jokatzeko». Esan beharra dago, konstante kosmologikoa sartu zuenean, subjektibotasunaren aurrean amore eman zuela. Horrela matematiketek aurrikusten zuten Unibertsoaren etengabeko zabaltzea gaindi zezakeen, eta ondorioz interpretazio estatikoa eman ahal izan zion, une hartako gehiengoaren iritziarekin bat etorrira.

Gertakari historikoak objektiboak dira, baina ulertuko baditugu, historialariak batzuk hautatu eta interpretatu beharko ditu; horixe da, hain zuzen ere, euron lana. Eta puntu honetan dator harira, hain

zuzen ere, Espainiako Historia Akademiak ezarritako errekomenazioa (ez da ahaztu behar XVIII. mendean sortu zela, Hizkuntza Akademia baino zertxobait beranduago, biak ere uniformazio helburu argiarekin eta hortik etorriko zirela gero esanguratsu bihurtu diren bandera eta ereserkia). Aholku horren jatorria Hezkuntza Ministerioan dago, honek egindako gertaera historikoen aukeraketan edo metakontaktetan, eta halaber, Hezkuntza Kalitatearen Legean du isla. Bertan Historia ikasgaien gai-zerrenda berria ezarri da, ondorioz, Euskal Herria subjektu historikoa dela ukatzen da. Tesi hauek, identitate tradizionalak kultur-aniztasunaren gainetik jartzearenak, beste herrialde edo estatu batzuetan ere zabaldurik daude. Horren adibide Estatu Batuetako F. Fukuyama eta S. Huntington, edo Erresuma Batuko G. Elton dira, historialari kontserbatzaile eta helburu politikodun garbiak.

Berriro ere Historiaren erabilera baten aurrean ote gaude bada?

gogoratzuz

Joxan Elosegi

DUELA 35 URTE

Andima

1967ko azaroaren 2an hil zen Caracasen, 61 urte zituela, Andima Ibiñagabeitia, euskal idazle eta itzultzaile bizkaitar handia. Historia zaleek, hau da, giza bilakaeraren emanei arduraz behatzea gogoko duten guztiek, ongi dakite ez dagoela kontu txikirik gabeko kondairarik, ez eta ilunperik gabeko argirik. Halaz ere, historiaren zuzentasun eza aitortu behar izaten dugu behin eta berriro: zeinen injustua den askotan historia! Eta hala da; besteak beste, humanoa ere badelako. Bidegabekeria horren lekuko da, inolaz ere, Andima Ibiñagabeitia. Ez gara kultura historiaren eragile-tzat hartu zale, ez dugu historiaren gainean hedatzen dituzten gezur-hodei ilunetatik harantz begiratzen jakiten. Tamala da. Egiaz asmatu zuen Susa argitaletxeak gure literatura aldizkariaren gordailuari Ibiñagabeitiaren izena eman zionean.

Sabino Aranaren laguna omen zuen aita, eta *Maisuaren* ideologia mamitu zuen Andi-

ma Ibiñagabeitiak etxean, Elantxoben. Kontu handiz neurtu behar dira, ordea, hitzak: *sabindar*, hau da, *atzerakoi* izatea leporatu izan diete ez gutxitan agintari jeltzaleek, Euskadi aske eta euskaldunaren alde egonik, alderdiaren posibilismo burges eta ageriko erdaltzalekeriaren aurrean zintzotasun abertzalea ahoa betean aldarrikatu izan dutenei. Haietakoa zen Andima; ez, inolaz ere ez, sabindar itxia.

Josulagunetan egin zituen Andimak ikasketak, baina abadetu baino lehenago utzi zituen eliz jantziak. Kultura klasikoaren jabe

egin zen apezgaitegian, eta giro hartan ikasi zuen literatura lantzen, maitatzen. Ez zuen kristau fedea galdu, bai ordea eliz agintari eta Kristoren uestezko zerbitzari askorenganako. Bipilki xahutu zituen guztiak, hain ongi ezagutzen zituen jesuitengandik hasita, Francok —eta euskararen betiko etsaiek— euskara eta Euskal Herriaren kontra bideratu zituen neurriak lotsagarriro bultzatu eta sustatzeagatik.

Idazle eta itzultzaile bikaina ere izan zen. «*Escritor de pura sangre*», deituko zion Orixe. Bizkaieratik abiatu eta berehala hartu

zion neurria euskarari: baturantz jo zuen ez-bairik gabe, Azkueren *gipuzkera osatuaren* eskutik. Hamaika hainbat artikulu idatzi zituen, euskaraz beti, orduko aldizkarietan. Gogoangarria da, inolaz ere, Euzko-Gogoa eginiko lana, ongi gogoan hartzekoak landuriko itzulpenak, batere ez zokoratze-koak euskal lanen aurrean idatzitako kritikak. Langile fina izaki, laster ulertu zuen, haren lagun handi Zaitetik adieraziko zion bezala, erbestetik ere lan gaitza egin zezakeela euskararen alde eta, xede haren ize-nean, abegi egin zien euskara lagun etorri zitzaizkion beste ideologia eta literatura molde guztiei.

Urte ilunak haiek, ezkutuan gorde nahi izan dizkigutenak. Besterik kontatu beharko ziguten «euskara batuaren gurasoek», ez baitzuten, sinestarazi nahi izan diguten bezala, horren eremu elkorrean jardun. Ez horixe. Horra bestela Andima, jakin nahi duenarentzat.